

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2402

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko hizkuntza-proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2023-2024ko ikasturtean.

Hezkuntza Sailak, hezkuntzako hainbat eragilerekin batera, «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa» adostu zuen. Bertan, jarduera-ildo estrategiko nagusiak jasotzen ziren; horien artean, irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea jasotzen zen, irakasle bakoitzaren kompetentzia-profila osatzen laguntzeko. Gizarte eleaniztun batean, irakasle-lanbideak eskatzen dituen kompetentzietako bat curriculumeko hizkuntza bakoitzean komunikatzeko gaitasuna da: bi hizkuntza koofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean.

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak, esparru hori garatu eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezarri baitu Euskal Autonomia Erkidegoan, oinarrizko zehar-kompetentziazat hartzen du hitzezko komunikaziorako, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia, horiek guztiak modu osagarrian erabilita, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan. Era berean, diziplina barruko oinarrizko kompetentziazat hartzen da hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. Kompetentzia horren helburua da ahozko eta idatzizko testuak erabiltzea –euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan–, hizkuntza-aniztasunarekiko modu egokian, eraginkorrean eta adeitsuan komunikatzeko, bizitzako hainbat egoeratan, bai eta literaturaren inguruko hezkuntza bat garatzea ere, norbere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutu ahal izateko.

Gainera, dekretu horretan ezartzen denez, hezkuntza-eskumenak dituen sailak elebitasuna bultzatuko du hezkuntza eleaniztun baten barruan, indarrean dauden hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen laguntzeko. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatuko da euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzen dutenean komunikazio-kompetentzia praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere oinarrizkoa. Hori guztia, atzerriko bigarren hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak lortzea baztertu gabe, hizkuntza-proiektuan hala jaso duten ikastetxeetan. Halaber, ezartzen da Sailak berak sustatuko duela hizkuntzen trataera integratua eta integrala, komunikazio-kompetentzia eleaniztuna garatzeko asmoz. Hori guztia, honako haue-tan jasotako xedapenak betetzeko, hezkuntzaren alorreko EAeko arau-esparrua osatzen baitute: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena; orobat, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Sailak, 236/2015 Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarria betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko plana onartu zuen; plan hori berrikusi eta 2019an argitaratu zen. Hobekuntza-plan horretan jasotako ildo strategi-koen artean dago, alde batetik, «Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren barruan» izenekoa, eta, bestetik, «Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza». Hobetzeko alorren artean, beren-beregi aipatzen dira hauek: ingelesezko irakaskuntza areagotzea eta zabaltzea hizkuntza-proiektu elea-niztunen bidez, non gutxienez jakintza-arlo bat atzerriko hizkuntzan irakatsiko den; irakasleek

hizkuntzen didaktikan duten konpetentzia hobetzea, eta antolaketa-bideak ezartzea hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek koordinatuta lan egiteko, hizkuntzen tratamendu integratuaren ikuspegia aplikatuta; behar den prestakuntza eskaintzea, hizkuntzakoak ez diren arlo eta ikasgaietako irakasleek gai horien erabilera espezifikoei dagokien hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia modu integral eta sistematizatuan lantzeko, eta ikastetxe guztiek hizkuntza-proiektua landu eta dinamizatuko dutela ziurtatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezartzen denaren babesean, deialdi hau elektronikoki izapidetuko da.

Dirulaguntza hau Hezkuntza Sailaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (BPE) jaso da. Plan hori Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 23ko Aginduaren bidez onartu zen.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretua kontuan hartuta (2021eko martxoaren 5eko EHAA, 47. zk.), eta bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako xedapenekin, baita azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren VI. tituluan ezarritako xedapenekin (EAEko herri-administrazioaren dirulaguntzak arautzen dira titulu horretan) eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoekin ere, abenduaren 23ko 15/2022 Legeak baimendutako kredituak aintzakotzat hartuta aurrekontu-zuzkidura nahikoa badagoenez (lege horren bidez, EAEko 2022ko Aurrekontu Orokorra onartu ziren), honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aurrekontu-zuzkidura.

1.– Agindu honen xedea da Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutario edo erregelamenduzkoa duten elkarte edo federazioentzako dirulaguntzak iragartzea, baldintza izanik 2023-2024ko ikasturtean hizkuntza-proiektu eleaniztunak egitea modalitate haue-takoren batean:

A modalitatea: Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, hizkuntza komunikaziorako konpetentzia zein konpetentzia eleaniztuna, garatzen dituen hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren bidez, bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuta. (I. eranskina).

B Modalitatea: Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, hizkuntza komunikaziorako konpetentzia zein konpetentzia eleaniztuna, garatzen dituen atzerriko hizkuntzetako curriculum-arloen irakaskuntzan ekimen berritzaileetan sakonduko duena, CLIL metodologiaren bidez, diziplinarteko proiektuen bidez, eremuka lanean.... (I. eranskina).

Bi modalitateetan, proiektuek ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren garapenari lotutako prestakuntza-jarduerak barne hartu behar dituzte.

Deialdi honi lotutako prestakuntzaren eta horrekin lotutako proiektuen helburua da hezkuntza-komunitate bakoitzak, ikasleen komunikazio-kompetentzia eta testuinguru soziolinguistikoa ezagututa, bere hizkuntza-proiektua diseinatu eta garatzea. Horretarako, berrikuntza didaktiko-metodologikoak abiaraziko ditu, hizkuntza komunikaziorako konpetentzia zein konpetentzia eleanitza garatzeko; berrikuntza horiek, hala, hezkuntza-zentroko hizkuntza guztiak aintzat hartuko ditu – bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak– ikasleak ahalik eta gehien garatu

ditzan hizkuntza-trebetasunak. Ekintza horiek lagungarri izan behar dute hezkuntza-zentroaren hizkuntza-proiektua lantzeko eta garatzeko, zentroaren hezkuntza-proiektuaren esparruan.

2.– Agindu honen bidez iragarritako dirulaguntzak finantzatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura, 1.332.000,00 euro bideratuko dira guztira.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Dirulaguntza hauei heldu ahal izango diete 5. artikuluko betekizunak betetzen dituzten eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioa edo erregelamenduzkoa duten federazio edo elkarteek, bai Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuek bakarrik eraturakoak direnek, bai Estatukoak direnek ere. Estatu osokoak direnek egotza izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.– Dirulaguntzak jasotzeko, aurreko atalean deskribatutako erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan garatu beharko dute hizkuntza-proiektua, hiru ikastetxe izan beharko dituzte gutxienik Euskal Autonomia Erkidegoan, eta itunpeko 50 gela edo gehiago.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu ahal izango da 1. artikuluan zehaztutako modalitateetako bakoitzari lotutako irakasleen prestakuntza, ikastetxeko hizkuntza-proiektua aurrera eraman dezaten, federazio edo elkarte onuradunekin harreman estatutario edo erregelamenduzkoa duten ikastetxeetan.

2.– Deialdi honetan proposatzen den prestakuntza-ereduak ikuspegi didaktiko-metodologiko bati erantzun behar dio, irakasleek hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala landu dezaten eta ikasleen komunikazio-kompetentzia garatzeko bide eman dezaten, metodologia aktibo eta berritzaileen bidez beti curriculum berriari lotuta.

3.– B modalitatean, proposatzen den prestakuntza-eredua irakasleen metodologia eguneratzera bideratuta dago, eta, gutxienez, hizkuntzaz kanpoko arlo edo gai bat eman behar da atzerriko hizkuntzan. Beraz, modalitate honetan proposatzen den prestakuntza-ereduak atzerriko hizkuntzako irakasleen komunikazio-gaitasuna hobetzea barne hartzen du. Prestakuntza horretarako zuzkidura ekonomikoak emango dira Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B1 mailatik B2 mailara eta B2 mailatik C1 mailara igarotzeko, gutxienez 50 ordukoak, ziurtagiria 3 urteko epean lortzeko.

4.– Hau izango da diruz lagundu daitezkeen prestakuntza:

Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren diseinuari eta garapenari lotutako prestakuntza-jarduerak.

Ikasleen komunikazio-kompetentziaren garapena hobetzeko eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala lantzeko helburuz arlo eta irakasgai guztietako irakasleei ematen zaizkien prestakuntza-jarduerak; eta hizkuntzen tratamendu integratu eta integrala sustatzen duten metodologia aktibo eta berritzaileak garatzeko prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta atzerriko hizkuntzan ematen diren irakasgaien irakaskuntzarekin lotura dutenak. Prestakuntza-jarduera horiek, bi modalitateetarako, honako eduki hauek jorratu ahal izango dituzte, besteak beste:

– Hizkuntza-interdependentziaren printzipioa eta hizkuntzen tratamendu integratua curriculumean.

– Alfabetatze aniztunak.

– Hizkuntza eskuratzeko prozesua: atzerriko hizkuntza bat goiz sartzea.

- Hizkuntzarentzat amendu curriculumaren arlo eta eremuetan: trebetasun kognitibo-linguistikoak.
- CLIL (Atzerriko Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua).
- Curriculum berriaren jarraibideekin bat datozen curriculum-material berritzaileak sortzea.
- Komunikazio-gaitasun eleaniztuna garatzea, curriculum berriaren jarraibideen arabera.
- Komunikazio eleaniztunaren konpetentzia ebaluatzea.
- Komunikazio-konpetentzia garatzen landuko duten metodologia aktiboak.
- Proposamen eta tresna digitalak aplikatzea eta sortzea hizkuntzen ikaskuntzan.
- Gelan proposamen pedagogiko berritzaileak ezartzea, hizkuntza-trebetasunak eta eleaniztasun-konpetentzia garatzeko.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 edo C1 mailako prestakuntza-jarduerak, gutxienez 50 ordukoak, irakasleek atzerriko hizkuntza baterako konpetentzia hobetzera bideratuak, eta hiru urteko epean ziurtagiri egokia (B2 edo C1) lortzea helburu dutenak. B modalitateko hizkuntza-proiektuen jardueretarako bakarrik.

5.– Atzerriko hizkuntza baterako konpetentzia hobetzeari lotutako prestakuntza deialdi honek kanpo geratuko da helburu hau ez duenean: irakasleek curriculum-gaiak atzerriko hizkuntza batean emateko ziurtagiri egokia lortzea (B2 edo C1) hiru urteko epean. Ziurtagiria lortzeko, interesa duten irakasleek Hizkuntza Eskola Ofizialen egitura erabiliko dute (irakasleek lehentasuna dute horietan matrikulatzeko).

6.– A modalitatekanpo geratuko da irakasleek atzerriko hizkuntzan duten konpetentzia hobetzeko prestakuntza oro.

7.– Proiektuan diharduten irakasleen % 80k parte hartu beharko dute prestakuntza-jarduera horietan.

8.– Proiektuaosatzen duten irakasleen prestakuntza-jarduera guztiek prestakuntzan inplikatu-tako gutxieneko irakasle-talde bat izan behar dute, proiektuaren jarraipena bermatzeko, nahiz eta taldeko kideren bat aldatu. Salbuespen gisa, banakako jarduerak sartu ahal izango dira, betiere behar bezala justifikatuta badaude, ikastetxean jarraitutasuna, inpaktua eta jarraipena izateko itxura badute.

9.– Deialdi honen kontura diruz lagunduko diren gastuak egiteko aldia 2023ko irailaren 1ean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 15ean bukatuko.

4. artikulua.– Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuen ezaugarriak.

1.– Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuek, bi modalitateetako edozeinetan, honako atal hauek izan beharko dituzte (IV. eta V. eranskinak, modalitatearen arabera):

- Diagnostikoa, hauek hartuko dituena:
 - Ikasleen emaitzak (euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzetan, barne- eta kanpo-ebaluzioetatik datozenak) aztertzei eratorritako hobekuntza-eremuak
 - Diagnostikotik eratorritako hobekuntza-eremuak.

- Hobekuntza-eremuak, Eleaniztasunerantz 2022-2023 proiektua inplementatzean aztertu eta ikasitakotik ondorioztatutako hobekuntza-eremuak, proiektua ikasturte honetan garatzen ari diren ikastetxeen kasuan.

- Hobekuntza-esparruak daudela egiaztatzen duten beste ebidentzia batzuk.

- Ikastetxe elkartuek nolako ibilbidea duten hizkuntzekin zerikusia duten esperientzietan.

- Ikasturtean garatu beharreko proiektuaren helburuak, ikasleen aniztasuna eta egindako diagnostikoa kontuan hartuta.

- Hartzaileei eta aurreikusitako ekintzei buruzko datuak biltzen dituen plangintza:

a) Hartzaileak, proiektuan parte hartzen dutenak:

- Ikastetxeko ikasleen talde eta maila guztien kopurua.

- Proiektuan parte hartzen duten ikasleen talde eta hezkuntza-maila guztiak.

- Irakasle guztien kopurua eta proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua.

b) Proiekturako aurreikusitako ekintzak, helburu estrategikoetan oinarrituak. Plangintza eta gauzatze-egutegia eta proiektuaren garapena bermatzeko beharrezkoak diren asteko koordinazio-saioen kopurua barne.

c) Proiektua ebaluatzeko irizpideak eta eraginaren emaitzak neurtzeko adierazleak.

d) Federazio edo elkarteak antolatzen dituen eta ikastetxeak parte hartuko duen prestakuntza-ekintzak, eta ikastetxearen beraren barneko jarduerak.

- B modalitateko hizkuntza-proiektuen kasuan, zehaztu egin beharko da hizkuntzez kanpoko zer gai emango den (edo emango diren) atzerriko hizkuntzan, bai eta zenbat ordu izango dituen atzerriko hizkuntzak eta zenbat ordu emango diren atzerriko hizkuntzan ere.

- Atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren irakasgaiak aukeratzeko orduan, irakasleek kontuan hartuko dute hau: ikasle-talde baten barruan, atzerriko hizkuntzan emango diren orduen kopurua berdina izatea denentzat, zein arlo edo irakasgai aukeratzeko dituzten kontuan izan gabe. Lehen Hezkuntzan, gutxienez, 4,5 ordu emango dira astean, eta 5 ordu Bigarren Hezkuntzan.

- Euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan emango diren orduen kopuruari eta irakasgai dagokienez, adieraziko da zein den hasierako egoera eta zer garapen aurreikusten den bi urteetarako, halako moldez non, ekitatearen mesedetan, maila beraren barruko ikasle guztiak eta ikastetxeko maila guztiak hartuko dituen, arian-arian.

- Garapen horrek kontuan hartuko du ikastetxearen egoera soziolinguistikoa, eta ezingo du eka- rri A eta B ereduetan euskaraz irakatsi beharreko ordu-kopurua txikiagoa izatea. Adierazi beharko da, talde bakoitzari dagokionez, zer irakasgairi eta zer irakats-hizkuntzari kenduko zaizkion orduak edukiak atzerriko hizkuntzan emateko.

2.– Hezkuntza Sailak ikastetxeen eskura jarri ditu ikastetxearen hizkuntza-proiektua diseinatzeko laguntza-gidak, esteka honetan: <https://labur.eus/hizkuntzaproiektua>. Gainera, irakurketa-plana egiten laguntzeko hainbat baliabide eta orientabide daude web-orri honetan: <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>. Gida horiek soil-soilik ikastetxeei laguntzeko dira, eta inola ere ezin dira hartu agindu honetan arautzen diren dirulaguntzei buruzko jarraibide osagarritzat.

5. artikulua.– Betekizunak eta haien egiaztapena.

1.– Federazioek eta elkarteek (hau da, erakunde eskatzaileek) honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Ikastetxe elkartuen hizkuntza-proiektuak aurkeztea 1.1 artikuluan jasotako modalitateen arabera. Oraingo ikasturterako lan-plana jaso beharko du, 4. artikuluan ezarritako edukiekin bat etorrita.

b) Egingo den prestakuntza zehaztea, eta prestakuntza jasoko duten ikastetxe eta irakasleen kopuruaren gaineko aurreikuspen bat egitea.

c) Ikastetxeek konpromisoa ematea proiektuak abian jarriko dituztela ziurtatuko duten ikastetxeetako bakoitzeko irakasleen artetik gutxienez hamarrek parte hartzeko proiektuekin lotutako prestakuntzan.

d) Deialdi honetan parte hartzen hasiko diren ikastetxeek konpromisoa ematea proposatutako proiektuetan gutxienez bi urtez parte hartzeko. Ikastetxeek lehenagotik ere parte hartu badute, lan-plan eguneratu bat diseinatu beharko dute aurreko proiektuaren ebaluazioa egin ondoren, helburuak lortzen lagunduko duten hobekuntza-proposamenak jasota.

e) Gainera, ezingo dira erakunde onuradun izan egoera hauetako batean dauden erakundeak:

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan azaldutako egoeraren batean daudenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiboa dutenak, edo horretarako ezgaitzen dituzten lege-debekuren bat dutenak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barne.

Hori dela eta, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute erakundeek, erakunde onuradun izateko debekua dakarten egoeretan sartuta ez daudela justifikatzeko; dena dela, horrek ez du balioko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela justifikatzeko. Bi bide ezartzen dira zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela justifikatzeko:

– Organo eskudunari baimena ematea hori egiaztatzeko, baimena eskaeraren eranskinean bertan markatuta.

– Organo eskudunari baimenik ez ematea hori egiaztatzeko; kasu horretan, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren eta Gizarte Segurantzaren nahitaezko ziurtagiriak erantsi beharko zaizkio eskaerari.

● Baldintza horiek eskatuko dira bai onuradun izateko, bai emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten jarraitzeko.

● Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresak, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresak ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

2.– Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko–, ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek eman dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasita dauden eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei. Azkenean, prozeduraren ondorioz laguntza publikoak jasotzeko desgaikuntza dakarren zehapena edo itzultzeko betebeharra ezarriko balitz, baldintzapean emandako dirulaguntza hori indargabetu egingo litzateke, onuradun izateko debekua dakarten egoeretako batzuetan egoteagatik –Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluko a), g) eta h) letretan ezarri dira egoera horiek–.

3.– Eskaeran sartutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, hauek egiaztatuko dira:

Ez dela eskuratu helburu bererako inolako dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako bitartekorik edozein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatutatik.

Ez duela administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.

Eskaeran eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela, eta ez dagoela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan jasotako egoeraren batean.

Estatuko erakunde kasuan, erakunde eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duela, nortasun juridikoa eta ahalorde askietsia dituela, bai eta, gutxienez, Euskadin kokatutako hiru ikastetxe ere. Kasu horietan, erantzukizunpeko adierazpenean jasotako alderdiak egiazkoak direla egiaztatzeko, ordeztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, dirulaguntza emateko prozedura ebatzi aurretik. Horretarako, prozeduran alegazio-epe bat irekiko da, prozedura ebatzi aurretik egiaztapen hori ahalbidetzeko. Epe hori zuzenean jakinaraziko zaie elkarte/federazio interresdunei, egoitza elektronikoaren bidez. Bertan, dagokion dokumentazioa erantsi ahal izango dute <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> helbidean

4.– Erakunde onuradunak eskubidea du kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauak eskatzen ez dituzten dokumentuak ez aurkezteko, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua aplikatuz administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak ez aurkezteko ere; azken kasu horretan, adierazi beharko du noiz eta zein administrazio-organori aurkeztu zizkion dokumentu horiek.

Alde horretatik, dirulaguntza eskatzen duen federazioak edo elkarteak ez du aurkeztu behar dokumentazio osagarriarik (6.4 artikulua; eskrituraren edo eratze-aktaren kopiarik, dirulaguntza eskatzeko ahalorde askietsiaren dokumentaziorik eta eskatzen duen federazio edo elkartearekin zerikusia duten ikastetxeen zerrendarik), baldin eta dokumentazio hori Hezkuntza Sailaren aurreko deialdietan aurkeztu bada eta aldatu ez bada. Kasu horretan, adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organori aurkeztu zizkion dokumentu horiek.

6. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskaerak bitarteko elektronikoz aurkeztu beharko dira, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskaera izapidetzeko jarraibideak eskuragarri dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, eskaeraren formulariora sartzeko erabili behar dena eta erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak dituen, helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1013610>.

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskaera eta dokumentuak. Prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

Eskaera egin ostean, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> web-orriaren bidez egin beharko dira hura onartzeko edo ukatzeko ebazpena eman arte egin beharreko izapide guztiak, bai eta justifikazioaren eta gora jotzeko errekursoaren izapideak ere.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa adierazita dago zein bitarteko onartzen diren identifikaziorako eta sinadura elektronikorako, eta helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>.

5.– Eskaera ordezkari baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki; horretarako, ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>.

6.– Eskaerekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Federazio edo elkarte eskatzailearen eratze-aktaren edo eskrituraren kopia konpultsatua.
- Eskaera sinatzen duenak dirulaguntza eskatzeko ahalorde askietsia duela egiaztatzeko agiriak.
- Estatutuz edo erregelamenduz federazio edo elkarte eskatzailearekin erlazionatuta dauden EAEko ikastetxeen zerrenda, ikastetxeen kodea adierazita.
- III. eranskinean jasotako laburpen-fitxa, non honako hauek jasotzen baitira: federazio edo elkarte eskatzaileari buruzko datuak; federazioari edo elkarteari dagozkion ikastetxe guztietan ezarriko den A modalitateko eta B modalitateko hizkuntza-proiektuari buruzko oinarrizko datu orokorrak, eta aurreikusitako prestakuntza-jardueren laburpena.
- IV. eranskinean jasotako deskripzio-fitxa, A modalitateko hizkuntza-proiektuaren oinarrizko datuak jasotzen dituena, lan-planaren ezarpenaren laburpenarekin batera. Taula bat beteko da parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko, dagokion elkarte edo federazioak aurkeztutako eskaeraren bidez, eta hauek ere jasoko dira: ikastetxe bakoitzean garatu beharreko proiektuaren datu espezifikoak eta zer prestakuntza-jardueratan parte hartu nahi den.
- V. eranskinean jasotako deskripzio-fitxa, ikastetxeetako bakoitzean ezarriko den B modalitateko hizkuntza-proiektuaren oinarrizko datuak jasotzen dituena. Taula bat beteko da parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko, dagokion elkarte edo federazioak aurkeztutako eskaeraren bidez, eta hauek ere jasoko dira: ikastetxe bakoitzean garatu beharreko proiektuaren datu espezifikoak eta zer prestakuntza-jardueratan parte hartu nahi den.
- Prestakuntza-jardueren deskripzio-fitxa, VI. eranskinean jasotakoa, sareko ikastetxeetan bi modalitateetako hizkuntza-proiektuak garatzeko beharrezkoak diren irakasleentzako prestakuntza-jarduera guztiak zehazten dituena.
- Elkartearen edo federazioaren hizkuntza-proiektu globala; proiektuak, gutxienez, 4. artikuluan adierazitako atalak jaso beharko ditu, gutxienez bi urterako proiektioa kontuan hartuta. Proiektu horretan, halaber, ikastetxe bakoitzaren proiektu indibidualei buruzko zehaztapenak jasoko dira, kontuan hartuta ikastetxeek zein modalitatetan parte hartuko duten aukeratu behar dutela.

7.– Ikastetxe jakin batek aldi berean harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak baditu federazio batekin eta elkarte batekin, edo federazio edo elkarte batekin baino gehiagorekin, agindu honetatik erator daitezkeen helburuetarako, ikastetxea haietako bakar batekin azalduko da lotua. Horretarako, ikastetxearen legezko ordezkariaren adostasunezko idatzia atxiki beharko da.

8.– Aurkeztu den eskaeran akatsen bat edo okerren bat dagoela ikusten bada, edo dokumenturen bat falta bada, elkarte edo federazio interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan. Hala egin ezean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren araberrako ebazpena eman ondoren, eskaeran atzera egin duela joko da.

7. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak kudeatuko du agindu honetan aurreikusten diren dirulaguntzak emateko prozedura.

8. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

Hautaketa-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko. Honako hauek osatuko dute:

Sebastián Martín Moreno, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Etengabeko Ikaskuntzako eta Irakasleen Hobekuntzako Zerbitzuaren arduraduna, batzordeburu izango dena.

Axular Astaburuaga Iturbe eta Celia Luengo Ugidos, Etengabeko Ikaskuntzako eta Irakasleen Hobekuntzako Zerbitzuko teknikariak. Horietako batek batzordeko idazkari-lanak egingo ditu.

9. artikulua.– Hautaketa-prozedura.

1.– Hautaketa-batzordeak agindu honetako VII. eranskinean ezarritako baremoa kontuan hartuta ebaluatuko du eskaera bakoitza. Horretarako, behar diren txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie laguntza-zerbitzuei.

2.– Eskaera kanpoan geratuko da, baldin eta lan-planaren balorazioak gutxienez 9 puntu lortzen ez baditu 1.1. apartatuan, VII. eranskinean jasotako baremoa aplikatuta.

3.– Eskaeren balorazioa kontuan izanik, hautaketa-batzordeak ebazpen-proposamen bat prestatu eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari igorriko dio. Proposamen horretan jasoko da zer hizkuntza-proiektu –bi modalitateetakoak– hautatu diren, eta zer ikastetxetan egingo diren proiektu horiek, baita federazio edo elkarte bakoitzari zer dirulaguntza ematea proposatzen den ere. Gainera, kanpoan utzitako eskaeren zerrenda sartuko da, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

10. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak eta dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Federazio edo elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbateko osoak elkarte edo federazioak aurkeztutako hizkuntza-proiektua garatzeko jasotako prestakuntza-jardueren kostu osoa estali ahal izango du, eskatutako modalitatearen arabera, kontuan hartuta ikastetxe bakoitza agindu honen 1. artikuluan azalduetako modalitateetako batean soilik egon ahalko dela, eta betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta honako muga hauekin:

a) Gehienez ere, 100 euro ordainduko dira proiektu eleaniztunean jasotako prestakuntza-jardueretan emandako ordu bakoitzeko. Jarduera emateari egotzitako gastu gisara zenbatu ahalko dira honako hauek: batetik, prestakuntza-jardueraren kostua, prestakuntza ematen duen erakun-

deak aurkeztutako aurrekontuaren arabera; eta, bestetik, ikastaroa emango duen irakaslearen joan-etorriek, ostatu-hartzeak eta otorduek eragindako gastuak, baldin eta prestakuntza-erakundeaz kanpokoa bada eta prestakuntza-saio horiek justifikatuta badaude proiektua gauzatzeko aurkeztutako proiektuan. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen joan-etorrietarako edo jan-edanetarako gastuak.

Prestakuntza-jarduerak emateko ondorioetarako, prestakuntza-zerbitzuak azpikontratatu ahal izango dira elkarteak edo federazioak prestakuntza hori emateko langile kualifikaturik ez badu. Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan ezartzen den moduan, emandako dirulaguntza osoaren % 70 izango da gehieneko muga, azpikontratu guztien prezioak batuta.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten dituenean Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak –lege horren bitartez, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentarauak–, onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik ematen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztuko dira), efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta txosten baten bidez berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.

b) Ez da diruz lagunduko 10 ordu baino gutxiagoko prestakuntza-jarduerarik.

c) Ez da diruz lagunduko edizio bakoitzean 5 plaza baino gutxiago iragartzen duen prestakuntza-jarduerarik. Hau da, proiektuan ikastaro bat sartzeko, gutxienez 5 parte-hartzaile beharko dira, eta parte-hartzaile horiek izan daitezke elkarte edo federazio eskatzaileko kide diren ikastetxe desberdinetakoak.

d) Ez dira ordainduko eta ez dira kostu moduan hartuko jardueran parte hartzen duten irakasleak ordeztzeko langileak kontratatzearen ondoriozko gastuak.

e) Hizkuntza-proiektuak eta haietan jasotako irakasleen prestakuntza garatzean beharrezkoa bada prestakuntzarako material bibliografiko lagungarriak erostea, horregatik ordaindu beharreko kopurua ezingo da izan proposatutako dirulaguntza osoaren ehuneko hogeita bost baino gehiago.

f) Diruz lagundu ahalko dira proiektua garatzeko zuzendaritza-, koordinazio-, segimendu- eta ebaluazio-gastuak, proiektua ikastetxeetan ezartzeari lotutakoak, eta proiektuari dagozkion prestakuntza-jarduerari lotutakoak. Proiektuari lotutako prestakuntza-jardueren zuzendaritzaren, koordinazioaren, segimenduaren eta ebaluazioaren gastuek, gehienez ere, orduko 25 euroren muga izango dute; III. eranskinean ("Prestakuntza-jardueren datuen laburpena") jasotzen da konzeptu horren barruan sar daitekeen ordu-kopurua, "orduak" atalean.

2.– 1. artikuluan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko proiektuaren kostuaren ondoriozko zenbatekoan –artikulu honen aurreko atalean aurreikusitako mugekin–, dirulaguntzen zenbatekoa banaketa proportzionalaren sistemaren bidez kalkulatu da. Sistema horren arabera, diru-zuzkidura globala eskaera bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera proportzioan banatuko da –VII. eranskineko baremoaren irizpideak aplikatuta–, betiere proiektuaren kostua eta eskatutako zenbatekoa gainditu gabe. Dirulaguntza kalkulatzeko, VIII. eranskinean zehaztutako irizpideei jarraituko zaie. Aurrekontu-gutxiagatasuna dela-eta hainbanatze-sistema aplikatzen denean, elkarte/federazio interesdunari aurretiazko

ebazpen-proposamena helaraziko zaio, dagokion dirulaguntzaren zenbatekoarekin, atzera egitea edo eskabidea birformulatzea erabakitzen badu ere.

11. artikulua.– Hizkuntza-proiektuak garatzeko laguntzak.

1.– Beren elkarte edo federazioaren babesean deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeek beren eremuan eskumena duen Hezkuntzan Laguntzeko Zentroaren laguntza eta aholkularitza jaso ahal izango dute prestakuntza-jardueri eta proiektuaren segimendu eta ebaluazioari dagokierik, ikastetxeko proiektuaren koordinatzailearekin eta elkarte edo federazioaren ordezkariarekin batera.

2.– Proiektu horietan parte hartzen duten irakasleek lehentasuna izango dute Hezkuntzan Laguntzeko Zentroetan hizkuntzen didaktikarekin lotuta antolatzen den prestakuntza jasotzeko.

12. artikulua.– Ziurtapenak.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak 30 prestakuntza-ordu ziurtatuko dizkie deialdi honen babesean hizkuntza-proiektuak garatzen dituzten ikastetxe elkartuetako irakasleei, baldin eta partaide izan den irakasle bakoitzak proiektuan izandako arduraldiaren eta beharrezko prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartzearen ehunekoa ikastetxe bakoitzean erabilitako ordu guztien % 80tik gorakoa bada, eta betiere helburu horretarako jarritako aplikazio informatikoan dagokion informazioa sartzan badute. Horretarako, 2023-2024ko ikasturtea amaitutakoan, parte hartzen duten ikastetxeei ahalmena emango zaie partaide izandako irakasleei buruzko datuak sartzeko aplikazio informatiko honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/es/inicio>

13. artikulua.– Dirulaguntzen bateraezintasuna.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak bateraezinak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandakoekin.

14. artikulua.– Prozeduraren ebazpena.

1.– Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatzeke zuzendariak, ebaluazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, behin-behineko ebazpena emango du, elkarte/federazio onuradun bakoitzari emandako dirulaguntzen zenbatekoa edo, hala badagokio, dirulaguntza ukatzeko arrazoiak adierazita. Behin-behineko ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie erakunde interesdunei, eta hamar eguneko epea izango dute, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

2.– Behin betiko ebazpenak behin-behineko ebazpenaren datu berberak izango ditu, eta elektronikoki jakinaraziko zaie erakunde interesdunei, agindua argitaratzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean. Erakunde onuradunek dirulaguntzak jakinarazi eta onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da behin betiko ebazpena, jendaurrean jartzeko. Ebazpen horretan erakunde onuradun bakoitzarentzako dirulaguntza osoa jasoko da.

3.– Epe horretan behin betiko ebazpenik eman ezean, eskaerak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Behin betiko ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen; horrenbestez, haren aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar dakiok Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpen elektronikoa egin eta hurrengo egunetik aurrera.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako dirulaguntzen erakunde onuradunek honako betebehar hauek dituzte, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrez gain (finantzaketa publikoa dela jakinarazteko publizitate egokia emateko neurriak ere hartu beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko lege horren 18. artikulua 3. eta 4. zenbakietan jasotakoarekin bat etorriz):

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, onartzen dela ulertuko da, salbu eta erakunde onuradunak berriaz eta idatziz uko egiten badio ebazpena elektronikoki jaso eta hamar eguneko epean.

b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako erabiltzea, hau da, hizkuntza-proiektua garatzeko eta, proiektu horri lotuta, irakasleak prestatzeko.

c) Konpromisoa hartzea hizkuntza-proiektuen garapenean ikasitakoa hezkuntza-komunitate osoari helarazteko, EAEko hezkuntza-administrazioak eleaniztasunari buruz antolatutako ikastaroetan, jardunaldietan edo prestakuntza-saioetan.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz.

e) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari.

f) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuz gero, horren berri ematea Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari.

g) Lankidetzan aritzea Hezkuntza Sailarekin prestakuntza-jardueretan parte hartu duten irakasleen segimendu eta ebaluazioan, bai eta orokorrean hizkuntza-proiektuen ebaluazioan eta proiektu horiek gauzatzen diren ikastetxeetan proiektuok duten eraginari buruzko ebaluazioan ere.

16. artikulua.– Ordainketa.

1.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, eta honela egingo dira ordainketak:

a) Lehenengo ordainketa emandako dirulaguntzaren zenbateko osoaren herena izango da, eta deialdiari buruzko ebazpena jakinarazten denetik hilabeteko epean egingo da, baldin eta tartean laguntzari berriaz uko egin ez bazaio eta lehenengo ordainketari dagokion zenbatekoaren gutxienez % 50 justifikatu badu erakunde onuradunak.

b) Bigarren zatian gainerakoa ordainduko da, erakunde onuradunak 17. artikuluan aipatutako frogagiriak ikasturtea amaitu eta 2024ko ekainaren 15era bitarte aurkeztu ondoren, egun hori barne.

2.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>

17. artikulua.– Laguntzak justifikatzea.

1.– Artikulu honetan aipatutako justifikazio-agiriak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dira, honako helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/nire-karpeta>

2.– Irakasleen prestakuntza-jarduerak amaitu ondoren, erakunde onuradunek ekainaren 15era arteko epea izango dute hautatutako hizkuntza-proiektuaren garapenari buruzko memoria aurkezteko. Memoriak atal hauek izango ditu:

- Hizkuntza-proiektua zenbateraino gauzatu den parte hartu duten ikastetxeetako bakoitzean, eta proiektuaren ebaluazio orokorra.

- Zer prestakuntza-jarduera egin diren, eta haietako bakoitzaren txostena, honako hauek adieraziz: edukia, eskainitako plaza-kopurua, parte-hartzaile kopurua eta zenbatek gainditu duten ikastaroa. Zehaztu beharko da, era berean, zer kostu ekonomiko izan duen prestakuntza-jarduera bakoitzak.

- Hizkuntza-proiektuak ikastetxeetako bakoitzean izandako eraginaren adierazleak: zenbat ikasle-taldetan ezarri den, eta hizkuntzetan izan dituzten emaitzen ebaluazioa, ikasturtearen hasiera abiapuntutzat hartuta; prestatu ondoren, atzerriko hizkuntzetan B1, B2 edo C1 maila dutela frogatzeko proba ofizialetara aurkeztu diren irakasleak zenbat diren, eta haien ehunekoa.

- Jasotako dirulaguntza zertarako erabili den azaltzen duen balantze ekonomikoa, eta federazio edo elkarteko organo gorenaren akta, balantze hori onartzen duena.

3.– Erakunde onuradunak, txostenarekin batera, emandako dirulaguntzaren hartzaile diren hizkuntza-proiektua eta prestakuntza-jarduerak egin direla egiaztatzen duten gastu-frogagiriak, fakturak edo bestelako dokumentuak aurkeztuko ditu. Era berean, honako justifikazio hauek ere aurkeztuko ditu: batetik, 10. artikuluko 1. zenbakiko a) letran adierazitakoak, hornitzaileen eskaintzei dagokienez, eta, bestetik, hizkuntza-proiektua edozein modalitatetan gauzatzeko azpi-kontratazio-ehunekoaari buruzkoak.

18. artikulua.– Segimendua.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak hizkuntza-proiektuen eta ikastetxeetan duten ezarpenaren segimendua egingo du, dirulaguntzaren helburua betetzen dela bermatzeko.

19. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretakoren bat aldatzen bada, jakinarazi egin beharko da, eta gerta liteke horren ondorioz laguntza emateko ebazpena ere aldatzea.

20. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Dirulaguntzen onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubidearen pean egongo dira, eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorraren 37.1 eta 2. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, honako kasu hauetan itzuli beharko dute eman eta jasotako zenbatekoa, osorik edo partez, baita aplikatu daitezkeen legezko interesak ere (berandutze-interesa barnean dela):

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluen 1. apartatuan jasotako itzulketa-kausaren bat denean.

- Dirulaguntza ez bada erabili hura eskatu eta eman zenean adierazita zegoen xede espezifikorako.
- Dirulaguntza eragin zuen jarduera burutzen ez denean.
- Ez denean justifikatzen eman zen helburu zehatzetarako erabili dela dirulaguntza.
- Oro har, betetzen ez direnean azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko VI. tituluan ezarritako betebeharrak (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), agindu honetan ezarritakoak edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoak.
- Dirulaguntzaren gutxieneko aplikazio-ehunekoa, haren xedeari dagokionez, hau izango da: egiten direnean bi modalitateetarako diruz lagundutako ikastetxeko hizkuntza-proiektuen % 80 eta horretarako diseinatutako irakasleen prestakuntza-jardueren ehuneko bera. % 80tik beherako ehuneko ez egitea erabateko ez-betetzetzat hartuko da, eta, horrelakoetan, jasotako dirulaguntzaren zenbateko osoa gehi bidezkoak diren legezko interesak itzuli beharra egongo da. Ez-betetze partziala izango da, berriz, gutxienez % 80 egitea baina % 100era iritsi gabe. Horrelakoetan, dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko dute, diruz lagundutako proiektu globalaren betetze-mailarekiko proportzionala.

2.– Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta kudeaketa horretan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ere ezartzen dira. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

21. artikulua.– Datuen babesa, oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta «Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak:

Ekonomia eta Ogasun Saila. Ikastetxe publikoak eta itunpekoak.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.

Informazio gehigarria: Web-orri honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/050400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua; eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko araudia.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek auke-rako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

HIZKUNTZA-PROIEKTUEN MODALITATEAK:

Ikastetxeen elkarte edo federazioak hizkuntza-proiektu orokor bakarra aurkeztu behar du ikastetxe elkartu guztietarako, eta proiektu orokor horren barruan jasoko ditu ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektu indibidualak, kontuan harturik ikastetxeak aukeratu behar duela bere proiektuaren modalitatea.

1.– A MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK.

A modalitatean hizkuntzen tratamendu integral eta integratuan sakonduko duen ikastetxeko hizkuntza-proiektua sustatzen da, zeinak bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuko baititu. A modalitateko hizkuntza-proiektutzat hartzen dira hizkuntzen inguruko ekintza didaktiko-metodologikoak ikuspuntu integratu eta integral batetik praktikan jartzen dituzten proiektuak, ikasleen idatzizko zein ahozko erabilera eta ulermena hobetzeko eta ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hobetzeko helburuarekin.

Hauek dira proiektuan garatu beharreko alderdi batzuk, deialdi honen 3.4 artikuluan aipatutakoak barne:

- Hizkuntzaren tratamendu integratua eta integrala bultzatzea diziplina anitzeko programazioetan.
- Hizkuntzaren tratamendu integratuan sakontzea, hizkuntza-curriculumetako programazioak adostuz, curriculum berriaren arabera ikas-egoerak edo unitate didaktiko adostuak diseinatzuz eta horiek ikasgelan aplikatuz, hizkuntzen inguruko erabaki adostuak hartuz etab.
- Tratamendu metodologikoan berrikuntzak planteatzea, ikasleen komunikazio-kompetentzia zein konpetentzia eleanitza hobetzeko deialdi honetan aipatzen diren etapetan (estrategiak, jarduerak...), eta ebaluazioa egitea eremu eta ikasgai guztietan.
- Ikasgelako estrategiak eta beste jarduera batzuk aztertzea, ikasleen irakurmena, idazmena zein ahozkotasuna hobetzeko (solasaldiak, eztabaidak, aurkezpenak, antzerkia...).
- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak ezagutzeko, bai eta horiek ebaluatzeko eta zuzentzeko irizpideak, teknikak eta tresnak ere.
- Estrategia metodologiko eta/edo proposamen digital berriak ezartzea ikasgelan. Piktoidazketa, translanguaging...
- Literatura-hezkuntzaren inguruko proposamen didaktikoak egitea.

2.– B MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK.

Ikastetxeko B modalitateko hizkuntza-proiektu eleaniztuntzat jotzen dira atzerriko hizkuntzen ikaskuntza eta ikasleen profil eleaniztun eta kulturartekoaren garapena hobetzeko berariazko neurriak praktikan jartzen dituzten proiektuak, irakasleen prestakuntza eta eguneratze metodologikoaren bidez, gutxienez, hizkuntzaz kanpoko arlo edo ikasgai bat atzerriko hizkuntzan ematea ahalbidetzeko.

Hauek dira proiektuak gara ditzakeen zenbait alderdi:

- Komunikazio-ikuspegitik, ikasleak atzerrian komunikatzeko gaikuntza hobetzea, hizkuntzaren bost trebetasunetan, eta, bereziki, mintzamenean.
- Tratamendu metodologikoan berrikuntzak planteatzea, ikasleen komunikazio-kompetentzia hobetzeko deialdi honetan aipatzen diren etapetan (estrategiak, jarduerak...), eta ebaluazioa egitea eremu eta ikasgai guztietan.
 - Atzerriko hizkuntzen edukiak eta irakaskuntza uztartzen laguntzen duen metodologia.
 - Ikasleen hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen duen metodologia.
 - Estrategia metodologiko eta/edo proposamen digital berriak ezartzea ikasgelan. Pluriliteracies, CLIL, piktoidazketa, translanguaging...
 - Lankidetzeta eta proiektukako lana, ikastetxean Europako eta nazioarteko dimentsioa eragiteko; eTwinning eta Erasmus + ekimenean parte hartzea sustatzea.

II. ERANSKINA

ESKAERA ELEKTRONIKOA – ELEANIZTASUNERANTZ

Instrukzio-organoari zuzendua			
IKASKUNTZAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZA			
Elkartearen/federazioaren datuak			
Titularra			
Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	① Gizona ① Emakumea		
Ordezkaria			
Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	① Gizona ① Emakumea		
Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zein probintzia / lurraldetan dauden			
Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zein probintzia / lurraldetan dauden			
Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala			
Elektronikoa: «Nire kudeaketak» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Bertara iristeko, identifikazio-modu elektronikoa bat behar da. <i>10 egun naturaleko epean jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, ulertuko da baztertu egin duzula; beraz, izapidea egindakotzat joko da, eta Administrazioak prozeduran aurrera segituko du.</i>			
Abisuak jasotzeko datuak			
Nire Karpetan jakinarazpen edo komunikazio bat jasotzean, abisu bat bidaliko dizugu helbide elektronikora eta telefono mugikorrera.			
Helbide elektronikoa			
Mugikorra			
Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetaarako hizkuntza			
① Euskara ① Gaztelania			
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK			
<p>Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik. ● Ez du zehapenik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik. ● Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak. ● Erakunde eskatzaileak harreman estatutario edo erregelamenduzkoak ditu Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin. ● Estatuko erakunde kasuan, erakunde eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza du, nortasun juridikoa eta ahalorde askietsia ditu, bai eta, gutxienez, Euskadin kokatutako hiru ikastetxe ere. ● Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan zehaztutako egoeretako batean. ● Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu. 			

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.
- 50 langiletik gorako enpresa izanik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana onartu du, Estatuko legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldinzetan.
- 50 langiletik gorako enpresa izanik, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri ditu, Estatuko legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera.

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta "Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak" izeneko tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira.

- Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Helburua: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.
- Legitimazioa:
 - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
- Hartzailak:
 - Ekonomia eta Ogasun Saila. Ikastetxe publikoak eta itunpekoak.
- Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml>
- Araudia:
 - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)
- Baimena ematen zaio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzeak

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskudunean:

- ✓ Zerga-betebeharrak egunean izatea (Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)
- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - GSDO)

Salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu, arrazoituta. Aurka egiteko eskubidea baliatzea.

Baimena ematen dut dokumentu hauek kontsultatzeko:

Dokumentuaren izena	Zer egunetan eman den	Zer organotan eman den

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

Zer dokumentu eman diren	
Dokumentu mota	Izena

Honek elektronikoki sinatua:

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

III. ERANSKINA
LABURPEN-FITXA

Federazioa/Elkartea:Ikastetxe elkartuen kop.:.....

FEDERAZIOAREN/ELKARTEAREN DATU OROKORRAK

	Haur Hezkuntzako 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
FEDERAZIOAREN/ELKARTEAREN DATU OROKORRAK				
Itundutako gela kopurua, guztira				
Ikasle-kopurua, guztira				
Irakasle-kopurua, guztira				

2023-2024 IKASTURTEAN FEDERAZIOAREKIN / ELKARTEAREKIN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEETAKO A MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUEN BURUZKO DATU OROKORREN LABURPENA

	Haur Hezkuntzako 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK				
Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten taldeen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua, guztira				
2023-2024 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				

2023-2024 IKASTURTEAN FEDERAZIOAREKIN / ELKARTEAREKIN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEETAKO B MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUEN BURUZKO DATU OROKORREN LABURPENA

	Haur Hezkuntzako 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK				
Proiektuan lehenengoz parte hartzen duten ikastetxeen kopurua				
Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten taldeen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua				
Atzerriko hizkuntzan B2 mailako titulazioa edo goragokoa ziurtatzen duten irakasleen kop.				
Atzerriko hizkuntzaren bat (ingelesa, frantsesa, alemana...) irakasgai gisa ematen duten irakasleen kop.				
Irakasgaiaren bat atzerriko hizkuntzan ematen duten irakasleen kop. (aurreko atalekoak bazter utzita)				

IV. ERANSKINA

DESKRIPZIO-FITXA (A MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK)

Elkarteak edo federazioak 2023/2024 ikasturtean egingo duen A modalitateko hizkuntza-proiektuaren oinarrizko ezaugarriak.

(Proiektua ezarriko den ikastetxe bakoitzeko fitxa bat bete behar da)

IKASTETXEAREN KODEA:

IKASTETXEA:

Proiektuaren izena:

Proiektuaren urtea:

Lehenengo urtea

Bigarren urtea

Ikastetxearen datuen laburpena (A modalitateko hizkuntza-proiektuan parte hartzen dutenen datuak)

Proiektuaren plangintza ikastetxean:	Haur Hezkuntzako 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batzilergoa
Ikastetxeko ikasle-taldearen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten ikasle-taldearen kopurua, guztira				
Irakasle-kopurua, guztira				
2023-2024 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				

Deskripzio-fitxa honekin batera, erantsi, ikastetxe bakoitzeko, proiektuaren datu hauek:

- Diagnostikoa:
 - . Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientzietan
 - . Esperientzia horietan parte hartzen duten ikasle-taldeak
 - . Ikasle horien emaitzak euskararen, gaztelanian eta atzerriko hizkuntzan
- Proiektuaren helburuak
- Berrikuntza-proiektuaren barruan 2023-2024 ikasturtean egingo diren ekintzak
- Proiektuaren barruan 2024/2025 ikasturtean egingo diren ekintzak *(Derrigorrezkoa da elkartearekin edo federazioarekin deialdi honetan lehenengo aldiz parte hartzen duten edo zikloa berritzen duten ikastetxeentzat, eta aukerakoa da zikloaren bigarren urtean parte hartzen duten ikastetxeentzat —kasu horretan, bigarren urte horri dagokion kronograma aurkeztu beharko lukete—):
- Proiektua aurrera eramango dela ziurtatzeko koordinazio-plana. *(Ikastetxeak Hizkuntza Batzordea izendatua badu, honako taula hau bete behar da):

Batzordekideak	Kargua ikastetxean	Bileren maiztasuna

- Proiektua ebaluatzeko irizpideak eta eraginaren emaitzak neurtzeko adierazleak.
- Federazio edo elkarteak antolatzen dituen eta ikastetxeak parte hartuko duen prestakuntza-ekintzak, eta ikastetxeak berak antolatzen dituen barneko jarduerak.

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

V. ERANSKINA

DESKRIPZIO-FITXA (B MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK)

(Proiektua ezarriko den ikastetxe bakoitzeko fitxa bat bete behar da)

IKASTETXEAREN KODEA: IKASTETXEA: PROIEKTUAREN IZENA:

Proiektuaren urtea:	Lehenengo urtea	Bigarren urtea
---------------------	-----------------	----------------

Ikastetxearen datuen laburpena (B modalitateko hizkuntza-proiektuan parte hartzen dutenen datuak)

Proiektuaren plangintza ikastetxean:

	Haur Hezkuntzako 2. zikloa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
Ikastetxeko ikasle-taldeen kopurua, guztira				
Proiektuan parte hartzen duten ikasle-taldeen kopurua, guztira				
Irakasle-kopurua, guztira				
2023-2024 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				
Atzerriko hizkuntzan B2 mailako titulazioa edo goragokoa ziurtatu duten irakasleen kopurua				
Atzerriko hizkuntzaren bat (Ingelesa, frantsesa, alemana...) irakasgai gisa ematen duten irakasleen kopurua				
Irakasgaiaren bat atzerriko hizkuntzan ematen duten irakasleen kopurua (aurreko atalekoak kanpoan utzita)				

IKASTETXEKO B) MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAREN PLANGINTZAREN XEHETASUNA 2023-2024 IKASTURTERAKO:

Etap ¹	Maila	Taldea ²	Eredua A/B/D	Ikasle-kopurua		Proiektuan parte hartuko duten irakasleak		Ingeles ez emateko alorrak	Ingeles ez emateko ordu kop.	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko alorrak	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko ordu kop.	Euskaraz emateko alorrak	Euskaraz emateko ordu kop.	Gaztelaniaz emateko alorrak	Gaztelaniaz emateko ord. kop.	Proiektuaren eraginez zenbat ordu gehiago ematen den atzerriko hizkuntzan
				Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak									

IKASTETXEKO B) MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAREN PLANGINTZAREN XEHETASUNA 2024-2025 IKASTURTERAKO: ³

Etap ¹	Maila	Taldea	Eredua A/B/D	Ikasle-kopurua		Proiektuan parte hartuko duten irakasleak		Ingeles ez emateko alorrak	Ingeles ez emateko ordu kop.	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko alorrak	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko ordu kop.	Euskaraz emateko alorrak	Euskaraz emateko ordu kop.	Gaztelaniaz emateko alorrak	Gaztelaniaz emateko ord. kop.	Proiektuaren eraginez zenbat ordu gehiago ematen den atzerriko hizkuntzan
				Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak									

¹ Erabili kode hauek: Haur Hezkuntzako bigarren zikloa: 1, Lehen Hezkuntza: 2, DBH: 3, Batxilergoa: 4.² B modalitateko proiektuan jardungo duen talde bakoitzeko erregistro bat bete behar da.³ Derrigorrezkoa da deialdi honetan lehenengo aldiz aurkezten diren edo zikloa berritzen duten ikastetxeentzat; aukerakoa da zikloaren bigarren urtean daudentzat.

Deskripzio-fitxa honekin batera, erantsi, ikastetxe bakoitzeko, proiektuaren datu hauek:

- Diagnostikoa:
 - . Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientzietan
 - . Esperientzia horietan parte hartu duten ikasle-taldeak
 - . Ikasle horien emaitzak euskaran, gaztelanian eta atzerriko hizkuntzan

- Helburuak

- Berrikuntza-proiektu eleaniztunean gauzatu nahi diren ekintzak eta neurriak.

- Proiektua aurrera eramango dela ziurtatzeko koordinazio-plana. *(Ikastetxeak Hizkuntza Batzordea izendatua badu, honako taula hau bete behar da):

Batzordekideak	Kargua ikastetxean	Bileren maiztasuna

- Proiektua ebaluatzeko irizpideak eta eraginaren emaitzak neurtzeko adierazleak.

- Federazio edo elkarteak antolatzen dituen eta ikastetxeak parte hartuko duen prestakuntza-ekintzak, eta ikastetxeak berak antolatzen dituen barneko jarduerak.

VI. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DESKRIPZIO-FITXA

Jardueraren izena.....

Hurrenkera zk.:

Jarduera egiteko aurreikusitako egunak:

Hasiera.....Amaiera.....

- 1.– Prestakuntza-jardueraren justifikazioa.
- 2.– Jardueraren hartzailleak.
- 3.– Jardueraren hizkuntza (euskara, gaztelania, ingelesa edo beste batzuk).
- 4.– Prestakuntza-jardueraren helburuak.
- 5.– Edukien definizioa.
- 6.– Jardueraren egitura: non egingo den, egutegia, orduak guztira, zati bereziak eta haien denbora-antolaketa.
- 7.– Jardueraren ebaluazioa, jarritako helburuen arabera: ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak.
- 8.– Zein erakundek eta zein irakaslek emango duten jarduera.
- 9.– Aurrekontua eta haren justifikazioa.
- 10.– Eskatutakoa, guztira.

VII. ERANSKINA

ESKAEREN BALORAZIO TEKNIKO EGITEKO BAREMOA

1.– Lan-planaren eta hizkuntza-proiektuaren osotasunaren balorazioa:

1.1.– Lan-planaren balorazioa:

– Diagnostikoa: Ikastetxe parte-hartzaileen ibilbidea hizkuntzekin lotutako esperientzietan (aurreko deialdiak, eleaniztasun-esperientziak, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala, ikastetxeko prestakuntza-proiektu hizkuntzei lotuak, parte hartzen duten ikasleen datuak, emaitza-datuak hizkuntzen arabera...).	- 2 -
– Lan-planaren eta diagnostikoan hautemandako beharriaren arteko erlazioa.	
-Proiektuak barne hartzen ditu hizkuntza-arloekin lotuta dauden eta hizkuntza-arlokoak ez diren helburuak.	- 2 -
– Proiektua gauzatzeko jarduera-proposamen zehatzak zehazten dira, taldea eta zein hezkuntza-mailatan aplikatzen diren barne.	
-Proiektuan proposatutako helburuen argitasuna eta zehaztasuna.	- 2 -
– Proiektuaren helburuak inklusiboak dira, eta Elkartearen/Federazioaren proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasle guztiak hartzen ditu.	
-Proiektua aurrera eramateko proposatutako prestakuntza-jardueren zehaztasuna.	- 2 -
– Hartutako erabakien eta planifikatutako jardueren koherentzia egindako diagnostikoaren beharrekin eta elkarte edo federazioaren proiektuaren planteamendu osoarekin.	
-Prestakuntza-jardueren eta elkarte edo federazioak proposatutako lan-plan orokorraren edo hizkuntza-proiektuaren arteko erlazioa.	- 3 -
– CLIL hizkuntzen irakaskuntzako edukien bitartekaritza-metodologiaren printzipioak erabiltzen dira.	
– Hizkuntzen arteko transferigarritasuna eta interdependentzia islatzen da programatutako jardueretan.	
-Proiektuan proposatutako jarduerak metodologia esanguratsu bati egiten dioten ekarpena.	- 3 -
– Hobekuntzarako proposamen argia, hiru hizkuntzak kontuan harturik.	
– Proposatutako ekintzetan islatzen da trebetasun linguistikoko guztien garapena.	
-Helburuak lortzeko adierazleak eta proiektuan ezarritako ebaluazio-irizpideak definitzea.	- 2 -
– Bigarren urtetik aurrera, aurreko urtean aurkeztutako ebaluazio-irizpideen arabera, helburuen lorpen-maila eta emaitzak hobetzeko proposamenen definizioa.	
-Epe laburreko ibilbide estrategiko baten definizioa.	- 2 -
– Proiektuaren barruan ikasturte bakoitzerako ekintzak finkatzen dituzte.	
Gehienez ere	18 puntu

1.2.– Proiektuan edo lan-planean proposatutako emaitzen ebaluazioa:

– Proiektuak jasotzen dituen mailak. (Maila bakarra jasotzen badu, puntu 1 emango zaio; bi maila edo gehiago jasotzen baditu adierazitako artetik –Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa–, 2 puntu emango zaizkio).	- 2 -
– Proiektuan markatutako ebaluazio-irizpideen definizioa eta helburuen betetze-mailaren adierazlearen definizioa.	- 1 -
– Ebaluatzeke tresnak eta uneak finkatzea.	- 1 -
Gehienez ere	4 puntu

1.3.– Proiekturako edo lan-planerako eskatutako aurrekontu osoaren justifikazioa:

– Eskatutako aurrekontuaren eta proposatutakoaren arteko koherentzia.	- 2 -
– Eskatutako zenbateko osoak ez ditu gainditzen 10. artikuluan ezarritako mugak.	
– Eskatutako dirulaguntza banakatzeko azalpenak.	- 2 -
– Aurrekontuan sartutako kontzeptuetako bakoitza zehazten eta justifikatzen da.	
Gehienez ere	4 puntu

Gehieneko puntuazioa proiektuaren edukiengatik: 26 puntu

2.– Irakasleentzat proposatutako prestakuntza-jardueren balorazioa:

2.1.– Prestakuntza-jardueren beharra, bi modalitateetako hizkuntza-proiektua garatzearekin lotuta:

– Hizkuntzen irakaskuntzaren eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzaren metodologia hobetzearekin lotutako prestakuntza-jarduerak, metodologia aktibo eta berritzaileei buruzko edukiak lantzeko, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
– Hizkuntzen irakaskuntzaren eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzaren metodologia hobetzearekin lotutako prestakuntza-jarduerak, metodologia aktibo eta berritzaileei buruzko edukiak lantzeko, haien iraupena 49 eta 20 ordu artekoa izanda.	- 4 -
– Hizkuntzen irakaskuntzaren eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzaren metodologia hobetzearekin lotutako prestakuntza-jarduerak, metodologia aktibo eta berritzaileei buruzko edukiak lantzeko, haien iraupena 19 eta 10 ordu artekoa izanda.	- 3 -
– Arlo eta gai guztietako irakasleen kompetentzia didaktiko-metodologikoaren garapena sustatzen duten prestakuntza-jarduerak, ikasleen komunikazio-kompetentziaren garapena bultzatzeko, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
– Arlo eta gai guztietako irakasleen kompetentzia didaktiko-metodologikoaren garapena sustatzen duten prestakuntza-jarduerak, ikasleen komunikazio-kompetentziaren garapena bultzatzeko, haien iraupena 49 eta 20 ordu artekoa izanda.	- 4 -
– Arlo eta gai guztietako irakasleen kompetentzia didaktiko-metodologikoaren garapena sustatzen duten prestakuntza-jarduerak, ikasleen komunikazio-kompetentziaren garapena bultzatzeko, haien iraupena 19 eta 10 ordu artekoa izanda.	- 3 -
– Jarduerak eginez hizkuntzen tratamendu integratua sustatzen duten prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakasleen metodologia hobetzeko, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
– Jarduerak eginez hizkuntzen tratamendu integratua sustatzen duten prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakasleen metodologia hobetzeko, haien iraupena 49 eta 20 ordu artekoa izanda.	- 4 -
– Jarduerak eginez hizkuntzen tratamendu integratua sustatzen duten prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakasleen metodologia hobetzeko, haien iraupena 19 eta 10 ordu artekoa izanda.	- 3 -
– Gelako berrikuntzarekin eta metodologia-aldaketekin lotutako prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmenaren garapena bultzatzeko, bereziki euskaraz, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
– Gelako berrikuntzarekin eta metodologia-aldaketekin lotutako prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmenaren garapena bultzatzeko, bereziki euskaraz, haien iraupena 49 eta 20 ordu artekoa izanda.	- 4 -
– Gelako berrikuntzarekin eta metodologia-aldaketekin lotutako prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmenaren garapena bultzatzeko, bereziki euskaraz, haien iraupena 19 eta 10 ordu artekoa izanda.	- 3 -
– C1 edo B2 hizkuntza-eskakizuna lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 80 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 4 -
– C1 edo B2 hizkuntza-eskakizuna lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 65 eta 79 ordu artekoa izanda.	- 3 -
– C1 edo B2 hizkuntza-eskakizuna lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 50 eta 64 ordu artekoa izanda.	-1-
Gehienez ere	5 puntu

2.2 Eskatutako jardueraren zehaztapen-maila:

– Eskatutako aurrekontuaren eta proposatutakoaren arteko koherentzia, jarduerako. (Puntu 1 emango da, jardueraren aurrekontua 10. artikuluan adierazitako parametro ekonomikoen barruan sartzen bada).	- 1 -
– Prestakuntza-jardueraren justifikazioa definitzea. (Puntu 1 emango da, baldin eta azaltzen bada zergatik proposatu den prestakuntza-jarduera egitea).	- 1 -
– Proposatutako helburuak prestakuntza-jarduerara egokitzea. (Puntu 1 emango da, helburuak bat badatoz eskatutako prestakuntza-jarduerarekin).	- 1 -
– Aurreikusitako edukien argitasuna eta zehaztasuna. (Puntu 1 emango da, baldin eta prestakuntza-jarduera bakoitzean garatuko diren edukiak zehazten badira).	- 1 -
– Prestakuntza-jardueraren egitura zehaztea. (Puntu 1 emango da, baldin eta faseak –halakorik badago–, egutegia, bereizitako parteak eta haien denbora-antolaketa aipatzen eta justifikatzen badira).	- 1 -
– Koherentzia ebaluazio-irizpide eta -adierazleak definitzean. (Puntu 1 emango da, baldin eta jarritako helburuekin bat datozen ebaluazio-irizpide eta -adierazle koherenteak aipatzen badira).	- 1 -
Gehienez ere	6 puntu

Gehieneko puntuazioa prestakuntza-jarduera bakoitzeko: 11 puntu

Jardueren balorazioa honela egiten da:

- lehenik, jarduera bakoitzari puntuazio bat ematen zaio atal bakoitzerako.
- bigarrenik, jarduera bakoitzarengatik lortutako puntuazioa batu, eta eskatutako jarduera-kopuruarekin zatitzen da; horrela, elkarte edo federazio eskatzailearen jardueren batez besteko puntuazioa ateratzen da.

3.– Proposatutako proiektuaren eragina baloratzea:

– Modalitateetako edozeinetan lehenengoz parte hartzen duten ikastetxeen kopurua (bat egiten duen ikastetxe bakoitzeko, 0,1 puntu esleitzen dira, gehienez ere 2 punturaino).	- 2 -
– Deialdian parte hartzen duten ikastetxe guztien kopurua (deialdian parte hartzen duten 5 ikastetxeko, 0,1 puntu esleitzen dira, gehienez ere 2 punturaino).	- 2 -
– B modalitatean eta Erasmus+ edo Etwining nazioarteko lankidetzaren proiektu batean parte hartzen duten ikastetxeen kopurua (mota horretako proiektuetan parte hartzen duten 2 zentroko 0,1 puntu ematen zaizkio, gehienez 2 puntu)	- 2 -
– A modalitateko hizkuntza-proiektuaren garapenean inplikaturako irakasleen ehunekoa (proiektuan elkarteko ikasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta parte-hartzea % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -
– A modalitateko hizkuntza-proiektua zenbat ikasle eta taldetan aplikatuko den (proiektuan elkarteko ikasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta parte-hartzea % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -
– A modalitateko hizkuntza-proiektua garatzearekin lotutako prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa (A modalitateko hizkuntza-proiektuko prestakuntza-jardueretan elkarteko irakasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta parte-hartzea % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -
– B modalitateko hizkuntza-proiektuaren garapenean parte hartzen duten irakasleen ehunekoa (proiektuan elkarteko irakasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta parte-hartzea % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -

– B modalitateko hizkuntza-proiektua zenbat ikasle eta taldetan aplikatuko den (proiektuan elkarteko ikasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta parte-hartzea % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -
– B modalitateko hizkuntza-proiektua garatzearekin lotutako prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten irakasleen ehunekoak (B modalitateko hizkuntza-proiektuko prestakuntza-jardueretan elkarteko irakasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak parte hartzen badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta parte-hartzea % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -
– Atzerriko hizkuntzan B2 mailako edo maila handiagoko titulazioa duten irakasleen ehunekoak (titulazio hori elkarteko irakasle guztien % 100etik % 75era bitarteko ehunekoak badu, 2 puntu esleitzen zaizkio; % 74tik % 50era bitarteko ehunekoak badu, puntu 1 esleitzen zaio; % 49tik % 25era, 0,5 puntu; eta titulazio hori duten irakasleen ehunekoak % 25etik beherakoa bada, ez zaio punturik ematen).	- 2 -
Gehienez ere	20 puntu

Honela kalkulatu da proiektuaren osotasunaren balorazio: 1. eta 3. apartatuetan lortutako balorazioaren eta 2. apartatuan lortutakoaren batura. Azken hori honela kalkulatu da: proposatutako prestakuntza-jarduerak hiru balorazio-irizpideetako bakoitzean lortutako puntuazioen batezbestekoa.

Gehieneko puntuazio globala: 57 puntu

VIII. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA KALKULATZEKO IRIZPIDEAK

1.– Kalkulutik kanpo utziko dira 3. artikuluan eta 10. artikuluko b, c eta d apartatuetan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten jardueri lotutako zenbateko guztiak.

2.– Diruz lagundu daitekeen jarduera bakoitzaren zenbatekoak 10.1 artikuluan zehaztutako muga ekonomikoetara egokituko dira.

3.– Aurreko hiru pausoak eman ondoren ateratzen den zenbatekoak deialdian ezarritako mugak gainditzen baditu, eman daitekeen dirulaguntzaren % 50 kalkulatu da eskatzaile bakoitzeko, eta gainerakoa deialdiaren zuzkidura amaitu arte emango da, irizpide hauen arabera banatuta: VII. eranskinean jasotako baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera eta elkarte/federazio eskatzaile bakoitzeko parte hartzen duen ikastetxe-kopuruaren arabera (modalitate bakoitzean parte hartzeko betekizunak betetzen dituzten ikastetxeak zenbatuko dira); horrela, tarte hauek ezarriko dira, guztizko puntuazioaren arabera:

- Puntuazioa 33 puntukoa edo handiagoa baldin bada, 3.100,00 euro emango dira elkarte/federazio eskatzailearekin parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko.
- Puntuazioa 29 puntutik gorakoa eta 33 puntutik beherakoa baldin bada, 3.050,00 euro emango dira elkarte/federazio eskatzailearekin parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko.
- Puntuazioa 26 puntutik gorakoa eta 29 puntutik beherakoa baldin bada, 2.800,00 euro emango dira elkarte/federazio eskatzailearekin parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko.
- Puntuazioa 24 puntutik gorakoa eta 26 puntutik beherakoa baldin bada, 1.500,00 euro emango dira elkarte/federazio eskatzailearekin parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko.
- Puntuazioa 24 puntutik beherakoa baldin bada, 1.000,00 euro emango dira elkarte/federazio eskatzailearekin parte hartzen duen ikastetxe bakoitzeko.

4.– Aurreko kalkulu guztiak egin ondoren ateratzen den emaitzak hala ere deialdiaren mugak gainditzen baditu, kalkulatu daitekeen dirulaguntzarekiko proportzionala den zenbateko bat kenduko zaio onartutako eskaera bakoitzari, aurrekontuetara egokitzeko.